PEDAGOGIA SISTEMIKOA FORMAKUNTZA

2026-2028



14. Edizioa

Angélica Olvera
Pedagogia Sistemikoaren **sortzailearekin**
zuzenean ikasteko aukera.

Formakuntza sakona, praktikoa, indartzailea

Hezkuntza sailak **homologatuta**

Bergaran eta Donostian. “Plaza mugatuak”.

Informazioa

630976813 begiradasistemikoa@gmail.com

HELBURUA

Gaur egungo ikasleei, familiei eta aniztasunari lekua egin ahal izateko erraminta eta estrategia berriak behar ditugu, gaur egungo testuingurura egokituko diren baliabideak.

Formakuntza honen helburua Pedagogia Sistemikoak hezkuntza komunitateari eskaintzen dizkion baliabide eta aukera berrietan trebatzean datza. Ikuspegi sistemikoaren bitartez, eskola eta familiaren arteko ordenak landuko ditugu, ikaslearen inguruan sortzen diren dinamikak aztertuz, bere ongizaterako eta ikaskuntza prozesurako oinarriak sendotuz. Aldi berean, zubiak eraikitzeko baliabideak landuko ditugu, bakoitzak(irakasle, ikasle, guraso, ...) gure tokia izan dezagun irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan.

Formakuntza hau, Pedagogia Sistemikoaren sortzailea den, Angélica Olvera-rekin elkarlanean gauzatuko dugu, Euskal Herriko gaur egungo errealitatera egokituz. Honetarako bertako irakasleak eta hezitzaileak eta baita beste herrialde batzuetakoak izango ditugu bideratzaile.

HARTZAILEAK

Irakasleak, hezitzaileak, pedagogoak, aholkulariak, orientatzaileak, terapeutak, formatzaileen formatzaileak, eskoletako zuzendaritza-taldeetako kideak, gurasoak... Hezkuntza munduarekin zerikusia duen pertsona ororentzat.

EDUKIAK

Ikastaroa guztiz praktikoa izango da. Ondoren zehazten diren gaiak landuko dira eta parte hartzaileen esperientziatik sortutako gaiak eta egoerak ere aztertuko ditugu. Hau guztia parte hartzaileen lan pertsonalean ere oinarrituko da.

- Begirada Sistemikoa
- Famlilia eta eskola sistemen arteko loturak eta erlazioa. Bakoitzari dagokigun lekua.
- Familia, ikaskuntzarako lehen iturria: maitasuna, loturak, baloreak, mugak, sinesmenak, ...

- Irakaslearen presentzia.
- Harremanak eta loturak eskola-sisteman.
- Norbere historiaren eta lantokian ditugun harremanen arteko lotura.

- Belaunaldien gaineko begirada sistemikoa:

  Transgenerazioanala (arbasoak eta ni) / Intergenerazionala (gurasoak eta ni) / Intragenerazionala (berdinkideak eta ni).
- Nire lekuan kokatzea.

- Konpetentzia sistemikoak.
- Hezkuntza esparruko gatazken antzematea eta esku-hartzea.
- Ikasteko zailtasunek, kasu bakoitzean adierazten duten sakoneko dinamika.



- Ikuspegi sistemikoa Curriculum-aren arlo ezberdinetan.
- Sintonia korporal, emozional eta kognitiboaren garrantzia. Mugimendu sistemikoak, pertsona indartu eta zailtasunak bideratzen laguntzeko baliabidea.

TITULAZIOA

Formakuntza 300 ordukoa izango da guztira, bi mailak egin ezkero eta bi ikasturteetan zehar. Maila bakoitzean egindako 150 orduak adierazten dituen titulua jasoko duzue partehartzeaileok, 110 ordu presentzialak eta 40 ordua lan bideratuak. (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak homologatua EAEko irakasleentzat).

Oinarriak eta baliabideak

Lehen ikasturtean Pedagogia Sistemikoaren oinarriak landuko ditugu, ikuspegi sistemikotik abiatuta eskolan sortzen diren dinamikak ulertu eta bideratzeko modu integratzaileak landuz.

Zortzi modulu izango dira guztira ikasturte bakoitzean.

Nahiz eta gomendagarria izan bi mailak egitea, ez da derrigorrezkoa.

Modulu hauek larunbatean izango dira; trebatze saioak berriz, asteazkenean.

Programa 1. maila / 2026-2027 ikasturtea

1. Begirada Sistemikoa. *Iñaki Arana eta Iratxe Vázquez.*
2. Eskola eta familia. Ikas-komunitatea. *Iratxe Vázquez eta Belen Ortueta.*
3. Gorputzaren adierazpena. Gorputzean bizi. Miren Arzak.
4. Ikasgelarako baliabideak. Marrazkiak, irudiak eta panpinak. Irakurketa Sistemikoaren eredua. *José Carlos Pascual Rosado.*
5. Indartzen gaituen Begirada. "Mirar al alma de los niños". Bizitzaren Pedagogia. *Angélica Olvera(Mexiko).*
6. Aplikazio praktikoa eta akonpainamendua . I*ratxe Vázquez eta Belen Ortueta.*
7. Ikasleen ikaskuntza prozesua akonpainatzeko baliabideak. *Angélica Malpica (Mexiko).*
8. Bokazioa eta barne indarrarekiko konexioa gure proiektu pertsonalak eta profesionalak bideratzeko. (Residentziala, elkarbizitzan). *Miren Arzak eta Iñaki Arana.*

Trebatze saioak

Helburua, alde batetik, modulu bakoitzean landutako gaiaren inguruan sortutako galderak edo zalantzak argitzea izango da; eta bestetik, eskolako ihardueran sortzen ari zaizkigun egoera konkretuak lantzea eta trebatzea. Hauetako saio batzuk online izango dira.



Presentzia eta akonpainamendua

Bigarren ikasturtean, irakaslearen eta hezitzailearen presentzian sakonduko dugu. Pedagogia Sistemikoak eskaintzen dizkigun baliabideekin eta mugimendu sistemikoen bitartez, irakaskuntzan eta heziketa prozesuetan dagokigun lekuan hobeto kokatu gaitezen.

BIDERATZAILEAK

ANGELICA OLVERA (Mexiko). Pedagogia Sistemikoaren sortzailea. Hainbat herrialdetan zabaltzen ari da ikuspegi pedagogiko hau. Idatzi dituen liburuen artean: “El éxito es tu historia. Pedagogía del siglo XXI”, “Raíces, vínculos y alas”, “Inteligencia Transgeneracional. “Sintonizando las miradas”, “Pedagogía Sistémica CUDEC”.

IÑAKI ARANA OREGI (Euskal Herria). Aholkulari sistemikoa. Psikologian eta Enpresa Zientziatan lizentziatua. Begirada Sistemikoan eta Familia Konstelazioetan aditua, CUDEC Pedagogia Sistemikoa Formakuntzaren zuzendaria da Euskal Herrian.

MIREN ARZAK VESGA (Euskal Herria). Osteopatian eta Begirada Sistemikoan espezializatua. Esperientzia luzea du bai kontsultan bai formatzaile bezala. “¿Dónde retengo mi vida?. La Osteopatía y la mirada sistémica” liburuaren egilea da.

IRATXE VAZQUEZ CECIAGA (Euskal Herria). Haur Hezkuntzako irakaslea, azken urteetan aholkulari lanetan ari da Antzuolako Herri Eskolan, eskola eta familien arteko hartu emanean landu eta sakondu du bereziki, begirada sistemikoaren ikuspegitik.

BELEN ORTUETA ORTIZ DE LUNA (Euskal Herria). Irakaslea, PT lanetan gaur egun, DBH eta LHn, Amurrioko Aresketa Ikastolan. Ikaslea indartzeko estrategia eta esku-hartzeetan sakondu du bereziki azken urteetan, begirada sistemikoaren ikuspegitik.

ANGELICA MALPICA OLVERA (Mexiko). Hezkuntza Zientziatan lizentziatua. Psikopedagogia espezialitatean. Dr. Emilio Cárdenas unibertsitateko eta CUDEC Taldeko zuzendaria izan da eta esperientzia handia du Pedagogia Sistemikoaren aplikazioan. " Los colores del Talento" liburuaren egilea da eta hainbat herrialdetan ari da zabaltzen bere esperientzia.

JOSE CARLOS PASCUAL (Madrid). Irakaslea Bigarren Hezkuntzan, Arte Ederretan eta Psikologian lizentziatua. “Una mirada cercana a la Pedagogía Sistémica“ liburua idatzi du eta hainbat artikulu publikatu ditu. Gelarako tresnen artean, marrazkien eta irudien irakurketa sitemikoan garatu du.

JOSE ANTONIO GARCIA TRABAJO (Leon). Lehen Hezkuntzako irakasle eta musika hezkuntzan espezializista. Urteak egin ditu eskolako zuzendari lanetan. Hainbat herrialdetan ari dar gaur egun Pedagogia Sistemikoaren aplikazioan duen esperientzia partekatzen.



TOKIA

Bergaran, Mariaren Lagundia Ikastetxean (Espaloia kalea 1, 20570).
5. eta 7. moduluak Donostian izango dira, eta 8.a residentziala, Arantzazun (Oñati).

ORDUTEGIA

Larunbata 9,00etatik 14,00etara eta 15,30etatik 19:00etara.

Asteazkena, arratsaldez, 17,30etatik 20,30etara.

Asteazkenetako saio batzuk online izango dira. Ikastaroa hasi aurretik zehaztuko dira zeintzuk eta jakinaraziko dizuegu.

INFORMAZIOA

630 976 813

begiradasistemikoa@gmail.com
info@eskolasistemika.eus

